

# Koiuntura

## DI-DA BATEAN



### EAE-KO EKONOMIA

- ✦ EAEko industriak nabarmen hobetu du bere ekoizpena, baina ez da gai izan enplegu garbia sortzeko ..... 2 orri.
- ✦ Langabezia tasa zazpi hamarren igo zen Euskadin 2011ko lehen hiruhilekoan ..... 4 orri.
- ✦ Ekonomia krisiak atzerritarren migrazio saldoak alderantzikatu ditu Euskadin..... 6 orri.
- ✦ Kontsumoko prezioen indizeak ez zuen aldaketarik izan martxoan ..... 8 orri.
- ✦ EAEko kontsumitzaileen konfiantza krisiaren aurreko balioetara hurbiltzen ari da ..... 10 orri.

### INGURUNeko EKONOMIA

- ✦ NDFk aldaketarik gabe utzi ditu bere aurreikuspenak munduko ekonomiarentzat ..... 12 orri.

## Ekonomiaren aldagai nagusiak

	2009	2010	2009		2010		
			IV	I	II	III	IV
<b>EAE-KO EKONOMIA</b>							
<b>BPG</b>	<b>-3,8</b>	<b>0,3</b>	<b>-3,1</b>	<b>-0,8</b>	<b>0,5</b>	<b>0,6</b>	<b>0,8</b>
Kontsumo pribatua	-3,7	0,8	-2,5	-0,6	1,4	1,2	1,2
Kontsumo publikoa	3,7	1,3	2,4	0,5	1,8	2,1	1,0
Kapital eraketa gordina	-15,4	-6,0	-14,6	-9,8	-6,8	-4,0	-3,2
Barne eskaria	-5,7	-0,7	-5,0	-2,6	-0,5	0,1	0,1
Esportazioak	-18,4	8,4	-15,7	1,1	11,0	9,0	12,7
Inportazioak	-20,1	5,9	-17,7	-1,8	8,7	6,1	11,4
Lehen arloa	3,6	-2,8	-13,0	-26,6	-4,2	18,3	8,2
Industria	-12,7	0,4	-9,4	-2,3	0,9	1,6	1,6
Eraikuntza	-3,6	-5,9	-1,1	-5,4	-5,5	-6,6	-6,2
Zerbitzuak	-0,2	0,8	-0,8	0,5	0,9	0,7	1,1
Balio erantsi gordina	-4,0	0,1	-3,3	-0,9	0,3	0,4	0,6
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-2,0	2,1	-0,9	-0,1	2,2	3,6	2,7
<b>ESPAINIAKO EKONOMIA</b>							
<b>BPG</b>	<b>-3,7</b>	<b>-0,1</b>	<b>-3,0</b>	<b>-1,4</b>	<b>0,0</b>	<b>0,2</b>	<b>0,6</b>
Kontsumo pribatua	-4,3	1,3	-2,6	-0,3	2,2	1,5	1,7
Kontsumo publikoa	3,2	-0,7	0,2	-1,1	-0,1	-0,7	-0,9
Kapital finkoaren eraketa gordina	-16,0	-7,6	-14,0	-10,5	-6,7	-6,7	-6,1
- Ekipamenduan	-24,8	1,8	-16,9	-4,6	8,7	2,4	1,2
- Eraikuntzan	-11,9	-11,1	-11,9	-11,3	-11,3	-11,2	-10,6
- Bestelakoetan	-16,2	-8,2	-17,2	-15,8	-11,0	-3,0	-1,5
Nazio eskaria (ekarpena)	-6,4	-1,2	-5,3	-3,0	-0,3	-0,7	-0,6
Esportazioak	-11,6	10,3	-2,1	9,4	11,9	9,4	10,5
Inportazioak	-17,8	5,4	-9,2	2,0	9,6	5,0	5,3
<b>NAZIOARTEKO EKONOMIA</b>							
<b>BPG</b>							
AEB	-2,6	2,9	0,2	2,4	3,0	3,2	2,8
Japonia	-6,3	3,9	-1,8	5,4	3,3	4,7	2,5
Erresuma Batua	-4,9	1,3	-2,8	-0,4	1,5	2,5	1,5
Europar Batasuna 27	-4,2	1,8	-2,2	0,7	2,0	2,2	2,2
Eurogunea 17	-4,1	1,8	-2,1	0,8	2,0	2,0	2,0
Alemania	-4,7	3,6	-2,0	2,1	3,9	3,9	4,0
Frantzia	-2,6	1,6	-0,5	1,2	1,6	1,7	1,5

Iturria: Eurostat, INE eta Eustat.

## Laburpena

Koiunturako datuen argitarapenak baieztatzen du EAEko ekonomiak atzean utzi dituela ekoizpenaren eta balio erantsiaren beherakadak, eta susperraldia finkatzen ari dela. Hala ere, oraingoz ez da gai izan enplegu garbia sortzen hasteko. Baieztapen hori zuzena da bai ekonomia osoarentzat bai industriarentzat, gaur egun sektore horrek bizitasun handiena erakusten duena baita. Izan ere, IPIren otsaileko datuek erakutsi zuten arlo horrek oso nabarmen areagotu duela bere ekoizpena iazko epe beraren aldean, kanpotik iristen den eskaria oso sendoa delako. Horri esker, hazkunde erritmoa maila garrantzitsu batean egonkortzen ari dela agerian utzi du, krisiaren aurreko urteetako emaitzetara gutxigatik heltzen ez bada ere. Dena dela, Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek argitzen dute jarduera adar horrek langile kopurua gutxitzen jarraitzen duela.

Oro har, lehen hiruhilabetean lan merkatuaren emaitzak ez dira onak izan, langabezia tasak nabarmen gora egin zuelako eremu hori aztertzen duten bi inkesta nagusietan. Hala eta guztiz ere, adierazi behar da lanik gabe dauden pertsonen kopurua igo izanaren arrazoi behinena ez dela lanpostuaren galera izan, ordura arte lan merkatutik kanpo zeuden lagun askok lanpostu bat lortzeko interesa agertu izana baizik. Beraz, biztanleria aktiboaren igoera da hiruhilabetearen giltzetako bat.

Espainiako Estatistika Erakundeak (INE) biztanleriaz egin duen estimazioak agerian utzi du 2011ko hasieran gehiago direla EAetik joaten diren atzerritarrak gure autonomia erkidegora iritsi direnak baino. Portaera hori krisia hasi zenetik hautematen da eta 2007. urtea arte bizi zen immigrante atzerritarren etengabeko etorreratik aldendu da. Aitzitik, gainontzeko autonomia erkidegoekiko migrazio saldoak adierazten du interesa dagoela EAera etortzeko, bereziki Arabara, lurralde historiko horrek biltzen baitu beste autonomia erkidegoetatik etorri diren pertsonen kopururik handiena.

Konsumoko prezioei dagokienez, martxoko emaitzek pentsarazten dute salneurrien goranzko joerak atsedena hartu duela, baina ez dago inolako zantzurik oraingo balio altuak apalduko direla pentsatzeko. Beste behin ere, energiako ondasunak dira KPIren urte arteko tasa %3,5ean jarraitzeko erantzuleak.

Ekonomiaren susperraldia kontsumitzaileen iritzietan ere hautematen da, orain aurreko hiruhilabeteetan baino konfiantza handiagoa erakusten dutelako. Are gehiago, Europako batez bestea baino baikorragoak dira. Ekonomia orokorraz eta familiaren ekonomiaz duten iritziak hobera egin du.

Azkenik, NDFren aurreikuspen berriak nabarmendu ditugu, urtarrileko estimazioaren aldean aldaketa gutxi izan baitituzte. Izan ere, munduko ekonomiak hazkunde tasa garrantzitsua lortuko duela iragartzen dute, hala 2011n nola 2012an, garapen bidean dauden herrialdeen gidaritzapean. Herrialde garatuek portaera positiboa izango dute, baina ez da horren bizia izango. Are gehiago, talde horren barruan oso bestelako portaerak hautemango dira. Herrialde batzuetan, hala nola AEBetan eta Alemanian, gehikuntza sendoak lortuko dira, baina beste batzuetan, esate baterako Espainian 2011n, zailtasunak egongo dira.

## EAEko industriak nabarmen hobetu du bere ekoizpena, baina ez da gai izan enplegu garbia sortzeko

Industriaren ekoizpena %3aren inguruan egonkortu da, urte arteko tasan

Eustatek argitaratu duen informazioaren arabera, otsailean EAEko industriak %6,7 areagotu zuen bere ekoizpena aurreko urteko emaitzaren aldean, egutegiaren eragina zuzenduta duen seriean neurtuta. Horixe da 2007ko apiriletik inoiz jaso den daturik gorena eta sektoreak gero eta susperraldi sendoagoa bizi duelako ideia finkatzen du. Serie leunduak, -hurrengo orrialdean irudikatu da- hazkunde erritmoa %3 zertxobait gainditzen duen maila baten inguruan egonkortzen ari dela adierazten du. Tasa hori garrantzitsua da, baina oraindik krisiaren aurreko urteetan lortzen zena baino txikiagoa da.

Zailtasun handienak kontsumo iraunkorreko ondasunetan daude

Ekoizkin talde bakoitzaren bilakaera oso ezberdina da eta bitarteko ondasunek bakarrik eskaintzen dute hazkunde iraunkor eta garrantzitsu bat, azken zortzi hilabeteetan %8aren inguruan kokatu baita. Beste muturrean, kontsumorako ondasunek joera etsigarria erakutsi dute, termino leunduetan %4tik hurbil dagoen beherakada bat jasota, kontsumo iraunkorreko ekoizpenak izan duen jaitsiera biziak baldintzatuta. Beste aldetik, bai ekipamendurako ondasunak bai energiaren ekoizpena atzean uzten ari dira urte arteko datu negatiboak eta hazteari ekin diote berriro, oraingoz tasa positiboak oso txikiak diren arren.

Arlo horretako enpresariak gero eta baikorragoak dira

Industria Ministerioak enpresarien iritziez argitaratu dituen informazioak baieztatzen du IPIren datuek sektorearen susperraldiaz erakusten duen irudia, industria giroaren indizeak balio negatiboak gutxitzeko joerari jarraipena eman diolako. Hain zuzen ere, adierazle hori -7,3an kokatu zen apirilean, 2008ko abuztutik inoiz izan duen baliorik onena, oraindik negatiboa izan arren. Industria arloko enpresarien konfiantzak izan duen hobekuntza inkestaren hiru osagaien baikortasun handiagotan oinarritzen da. Izan ere, eskari zorroa ez da ona, baina oso urrun dago azken bi urteko lehortetik. Merkatuetan tokirik aurkitzen ez duten amaitutako ekoizkinen stocka nahiko txikia da gaur egun eta krisiaren aurreko mailara itzuli da. Azkenik, ekoizpenaren joeraz daukaten iritzia positiboa da (enpresari baikorrak ezkorak baino gehiago dira) eta hilabeteak aurrera doazen heinean gero eta baikorragoak dira.


Industrian gero eta lanpostu gutxiago galtzen da

Industria arloaren hobekuntza ukaezina den arren, sektore hori oraindik ez da gai izan enplegu garbia sortzeko. Egia da argitaratu diren adierazleek suspertzeko joera garrantzitsua erakusten dutela, baina oraindik aldakuntza tasak negatiboak dira. Esate baterako, Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden industria arloko langileen kopurua %2,0ko jaitsi zen apirilean urte arteko tasan, azken hogeita hamar hilabeteako emaitzarik onena baita, eta sektoreko enpresarien igurikimenak enpleguaz zeroan kokatu ziren (baikorren kopurua eta ezkorrena berdinduta zeuden) hiru urtez jarraian balio negatiboak jaso ondoren.


EAE-KO EKONOMIA

INDUSTRIA


**IPI indize orokorra**  
Urteko tasa leundua




**IPI bitarteko ondasunak**  
Urteko tasa leundua




**IPI ekipamendurako ondasunak**  
Urteko tasa leundua



**IPI kontsumoko ondasunak**  
Urteko tasa leundua



**IPI energia**  
Urteko tasa leundua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten eta Industria, Turismo eta Merkataritza Ministerioaren datuak erabilita.

## Langabezia tasa zazpi hamarren igo zen Euskadin 2011ko lehen hiruhilekoan

Alde handiak daude landunen bilakaeran...

Lan merkatua aztertzen duten bi inkesta nagusiek portaera ezberdinak erakusten dituzte landunen kopuruaren bilakaeran 2011ko lehen hiruhilabetean. Hain zuzen ere, BJAk lan egin zuten pertsonen kopurua 940.000 lagunetan kokatu zuen, azken sei urteko mailarik apalena baita. Zenbateko horrek adierazten du oraindik lanpostuak galdu direla, baina galera hori nahiko txikia izan dela (%-0,3). Are gehiago, jaitsiera arin hori oso hurbil dago Gizarte Segurantzako afiliazioak epealdi horretarako eskaini duen batez besteko emaitzatik (%-0,2). Beste aldetik, BAI inkestaren estimazioak bizitasun handiagoko irudia eskaini du, enplegua erritmo onean (%1,2) sortu baita, laugarren hiruhilekoz jarraian. Horri esker, landunen kopurua 939.500 pertsonatan kokatu da. Estatistika batean eta bestean hautematen diren joerak kontrajarriak badira ere, azpimarratu behar da bi inkestek hurbiltzeko urratsak eman dituztela landunen kopuruari dagokionean.

...baina joera bera hautematen da biztanleria aktiboan

Hiruhilabeteko datuetan nabarmentzen den beste adostasun bat biztanleria aktiboaren bilakaerarena da, zeren eta bi kasuetan lan merkatuan parte hartu nahi duen biztanleriak bultzada garrantzitsua estimatu baita. Hain zuzen ere, Eustaten inkestak %1,8ko igoera estimatu du urte arteko tasan, BAIk eskaini duen %2,0tik oso hurbil dagoela. Aldagai horri dagokionez, zenbateko absolutuak 1.053.000 pertsonetara iritsi da BJAren kasuan eta 10.000 lagun gehiagotara INEren inkestan. Beraz, bi estatistiken arteko aldea %1era mugatzen da, oso alde txikia baita, laginen bitartez eginiko estatistikak direla kontuan hartzen bada.

Lan merkatuan parte hartzeko erabakia hainbat arrazoitan oinarritzen da

Lan merkatuan parte hartzeko interesa zergatik areagotu den azaltzea ez da erraza eta arrazoi asko egon daitezke, hala nola emakumearen parte hartzea lanaren munduan –hainbat hamarkadatan garatu den egiturazko prozesu bat da hori-, familian bestelako diru sarrerak bilatzeko beharra beste kideak lanik gabe daudenean, eta gainontzeko autonomia erkidegoena baino langabezia tasa txikiagoa edukitzeak sor dezakeen erakargarritasuna.


Bi inkestek langabeez ematen dituzten kopuruak gero eta hurbilagoak dira

Biztanleria aktiboaren hazkundeak eragin garrantzitsua izan du langabeziaren datuetan, bereziki BJAren kasuan. Hain zuzen ere, inkesta horrek 21.300 pertsonatan estimatu du lanik gabeko lagunen igoera. BAI inkestak, berriz, 9.800 lagunetara mugatzen du zenbateko hori, parte hartzaileen gorakadaren zati handi bat landunen multzora igaro zelako. Emaitza horietan dagoen ezberdintasunak ere lagundu du langabeen datuak bi inkestetan hurbiltzen. Zehazkiago adierazita, une hauetan 113.100 langabe daude BJAren arabera eta 123.500, berriz, INEren inkestan. Azkenik, bi langabezia tasak zazpina hamarren igo dira lehen hiruhilekoan eta, hurrenez hurren, %10,7an eta %11,6an kokatu dira Eustaten eta INEren datuetan. Beraz, langabezia tasa apalena duen autonomia erkidegoa izan da berriro.


EAE-KO EKONOMIA

LAN MERKATUA


Biztanleria aktiboa (BJA)




Biztanleria aktiboa (BAI)




Biztanleria landuna (BJA)




Biztanleria landuna (BAI)



Langabezia tasa (BJA)



Langabezia tasa (BAI)



Iturria: Eustat eta INE.

## Ekonomia krisiak atzerritarren migrazio saldoak alderantzikatu ditu Euskadin

EAEko biztanleria egonkortu da, baina gero eta gehiago dira Euskaditik joaten diren atzerritarrak...

INEk 2011ko martxoan zegoen biztanleria argitaratu berri du. Estatistika erakunde horren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan bizi den biztanleria ia ez da aldatu azken hamabi hilabeteetan eta 2.122.372 lagunetan kokatzen da, hots, 2010eko hilabete berean baino 312 biztanle gehiago bakarrik. Hala ere, aipatu beharreko aldaketa garrantzitsu batzuk hauteman dira atzerriko biztanleriari dagokionez. Izan ere, aurtengo lehen hiruhilekoan, gure autonomia erkidegoan bizi diren atzerritarren irteera areagotu da eta hiru hilabeteko epe laburrean 6.059 lagunek EAE utzi dute. Beste aldetik, atzerritarren etorrerak ia ez du bere erritmoa aldatu eta epealdi horretako immigranteak 3.912 izan ziren. Beraz, aurtengo lehen hiruhilabetean atzerritarren kopurua 2.147 lagunetan jaitsi da. Saldo hori osatzen duten gehienak gizonak dira (1.811 gizon eta 336 emakume). Estatu osoan ere saldoa negatiboa izan da eta 20.208 pertsonara iritsi da. Horiek horrela, jaitsieraren %10 baino zertxobait gehiago EAEko emaitzaren ondorioa da.

...hainbat urtez immigrazioa areagotu ondoren

Krisi ekonomikoaren hasierak, 2008. urtean, erabateko aldaketa eragin zuen atzerritarren portaeran. Urte askoan, gero eta gehiago ziren EAERA etortzen ziren atzerritarrak, baina saldo garbia 2007an 17.209 izatetik 2008an 962 bakarrik izatera igaro zen. Urte horretatik aurrera, saldo guztiak negatiboak eta gero eta handiagoak izan dira.

Hala ere, gero eta gehiago dira beste erkidegoetatik Euskadira etortzen direnak

Atzerritarren fluxuekin ez bezala, autonomia erkidegoen arteko biztanleria mugimenduek adierazten dute EAEK beste eskualdeetako biztanleak erakartzen dituela berriro eta 2011. urtean, hirugarren urtez jarraian, gehiago direla beste autonomia erkidegoetatik etorri diren immigranteak (espainiarrak izan edo atzerritarrak izan) EAETik beste erkidegoetara joan diren egoiliarren baino. Hain zuzen ere, lehen hiruhilabeteko saldoa positiboa (1.458) eta 2010. urte osoan (2.868) lortutakoaren erdia izan da. Immigrazioko eta emigrazioko zenbatekoak ikusita, badirudi saldoaren hazkundea gertatu dela etorrerak igo direlako eta ez horrenbeste irteerak murriztu direlako. Etorrerak areagotu izana lotuta egon daiteke langabezia tasen arteko aldearekin, zeren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren langabezia tasa gainontzeko erkidegoena baino nabarmen apalagoa baita.

Egoiliar berri gehienak Araban kokatzen dira


Lurralde historikoaren arabera, gainontzeko autonomia erkidegoetatik iritsi diren biztanle gehienak (843 lagun) Araban kokatu dira, Bizkaian eta Gipuzkoan etorrera horiek nabarmen apalagoak izan diren bitartean (hurrenez hurren 330 eta 286 biztanle). Atzerriarekiko fluxuei dagokienez, biztanleriaren jaitsiera handiena Gipuzkoan gertatu da, bertako saldo negatiboa -1.199 izan baita. Ondoren Arabakoa (-907) eta, azkenik, Bizkaikoa (-419) kokatzen dira.




## EAE-KO EKONOMIA

## BIZTANLERIA

Atzerritarren migrazio saldoak



Beste autonomia erkidegoekiko migrazio saldoak



Migrazio fluxuak atzerriarekin

		2009	2010	2011-I
Euskadi	Atzerrira joan direnak	17.548	18.775	6.785
	Atzerritik etorri direnak	16.608	17.423	4.259
	<b>Saldoa</b>	<b>-940</b>	<b>-1.352</b>	<b>-2.526</b>
Araba	Atzerrira joan direnak	2.144	3.589	1.815
	Atzerritik etorri direnak	3.115	3.375	908
	<b>Saldoa</b>	<b>971</b>	<b>-213</b>	<b>-907</b>
Bizkaia	Atzerrira joan direnak	8.479	8.648	2.382
	Atzerritik etorri direnak	7.881	8.343	1.963
	<b>Saldoa</b>	<b>-597</b>	<b>-305</b>	<b>-419</b>
Gipuzkoa	Atzerrira joan direnak	6.926	6.539	2.588
	Atzerritik etorri direnak	5.612	5.705	1.388
	<b>Saldoa</b>	<b>-1.314</b>	<b>-834</b>	<b>-1.199</b>

Iturria: INE.

## Kontsumoko prezioen indizeak ez zuen aldaketarik izan martxoan

Inflazioa %3,5ean kokatu zen bigarren hilabetez jarraian...

EAEko kontsumo prezioen indize orokorra %3,5ean kokatu zen martxoan, Espainiako batez bestea baino hamarren bat beherago. Hori horrela izanda, bigarren hilabetez jarraian indizeak 2008ko urritik izan duen baliorik gorenera iritsi da. Beste hilabete batez, petrolioaren garestitzea arabiar herrialdeetako matxinadengatik eta tabakoaren gainean ezarritako zerga izan dira prezioen indize orokorra igoarazi duten faktorean. Beraz, eta aurreko buletinetan adierazi zenez, prezioen igoera ez da barne eskariaren presioaren ondorioa. Salneurrien gorakadaren beste erantzule bat iazko uztaillean BEZ zergan ezarri zen igoera da, baina erabaki horren eragina aurtengo uztaillean desagertuko da. Hala eta guztiz ere, litekeena da datozen hilabeteetan faktore horiek prezioetan bigarren itzuliko ondorioak ekartzea. Lurralde historikoaren arabera, Arabak (%3,7), Bizkaiak (%3,6) eta Gipuzkoak (%3,3) egonkortzeko joera erakusten dute KPIren urte arteko tasan aurreko hilabetearen aldean.

...baina azpiko inflazioa berriro dago %2aren azpian

KPIk erakutsi duen bizkortzea, neurri handi batean, adierazle horren produktu gorabeheratsuenen portaerak eragin du. Izan ere, hondar inflazioa, elikagai freskoak eta energiako ekoizkinak biltzen baititu, %11,6an kokatu zen martxoan, erregaien atalak bizi zuen garestitze biziaren ondorioz. Hain zuzen ere, ekoizkin talde horren urte arteko aldakuntza tasa %19,4ra iritsi zen. Multzo horretako beste osagaiak, hots, landu gabeko elikagaienak, portaera motelagoa erakutsi zuen eta bere urte arteko tasa %2,6an kokatu zen. Beste aldetik, azpiko inflazioa, prezioen benetako joera hobeto irudikatzen baitu, %1,9an kokatu zen martxoan, otsaileko emaitza hamarren bat beheratuz.

Erregaiak eta tabakoa dira KPIren gehikuntzaren erantzule nagusiak

Indizearen urteko aldakuntzan, edari alkoholduen eta tabakoaren gehikuntza tasa (%14,3) nabarmentzen da, tabakoaren gaineko zergaren ondorioz. Horren ondoren, garraioa (%9,4) eta etxebizitzaren erabilera (%8,0) kokatu dira, petrolioaren garestitzeak eta gasaren zein argindarraren tarifen igoerak eragin handia dutelako bi atal horietan. Hazkunde garrantzitsua eta positiboa izan zuen *besteak* izeneko atalak ere (%3,1), jarraian hotelak, kafetegiak eta jatetxeak (%2,1) kokatu zirelarik. Beste muturrean eta aurreko urtearen aldean aldakuntza tasa negatiboekin komunikazioak (%-0,7), medikuntza, eta aisia eta kultura daude, azken bi atal hauek %-0,1eko tasarekin.

Prezioen goranzko norabideak EBZ kezkatzen du

Kontsumoko prezioen goranzko mugimenduak ez dira EAEko eta Espainiako ekonomietan bakarrik gertatzen, Europa osoan ere hauteman direlako. Azken eremu horretan, KPIren urte arteko aldakuntza tasa %3,1 izan da (%2,7 Eurogunean). Inflazioaren presio horiek arriskuan jarri dute Europako Banku Zentralak ezarri duen %2,0 ez gainditzeko helburua. Horren ondorioz, moneta agintaritzak interes tasak puntu laurden bat igotzea erabaki zuen, %1,25ean utzi arte.


EAE-KO EKONOMIA

INFLAZIOA


**KPI indize orokorra**  
Urte arteko aldakuntza tasa




**KPI azpiko inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**KPI hondar inflazioa**  
Urte arteko aldakuntza tasa



**KPI talde nagusiak**  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: INE.

## EAEko kontsumitzaileen konfiantza krisiaren aurreko balioetara hurbiltzen ari da

EAEko indizea Espainiakoa eta Europakoa baino zertxobait gorago dago

Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioak argitaratu duen kontsumitzailearen konfiantza indizearen (KKI) arabera, EAEko kontsumitzaileen aurreikuspenak hobetu dira 2011ko lehen hiruhilekoan. Hala eta guztiz ere, baikortasun hori ekonomia orokorraren eta lan merkatuaren etorkizunak sortzen duen kezka testuinguru batean kokatzen da, krisiak familien ekonomietan izan duen eraginaz gain. Edozein modutan, ekonomiaren atzeraldia hasi baino lehen zeuden balioetara nabarmen hurbildu dela erakusten du adierazleak. EAEko konfiantzaren datuak 91ko balioa lortu du, Espainiakoa (82) eta Europar Batasunekoa (88) gaindituz. Lurralde historikoaren arabera, Araba (96) nabarmentzen da Gipuzkoaren (90) eta Bizkaiaren (89) gainetik, baina kasu guztietan ikusten da konfiantza berreskuratzeke joera bera.

EAEko kontsumitzaileek kezka adierazi dute prezioen etorkizunaz

Indizea kalkulatzeko erabiltzen diren osagaiak bilakaera ezberdina erakutsi dute. Alde batetik, EAEko kontsumitzaileen perspektiben hobekuntza hiru ataletako susperraldian oinarritu da: ekonomia orokorrarena, langabeziarena eta familiaren ekonomiarena. Are gehiago, ekonomiaren egoeraz erabiltzen diren bi adierazleak (ekonomia orokorrarenak eta familiaren ekonomiarenak) lortu dituzten balioak 2007ko erdialdetik jaso diren handienak dira. Alde negatiboan, aurrezki igurikimenen indizea eta inflazio igurikimenen indizea kokatzen dira, atzera egin dutelako.

Aurrezkiaren igurikimenek atzera pausua eman dute

Aurrezkiak murrizteko joera hartuko du errenta erabilgarria, lan merkatuaren narriaduraren ondorioz, gutxituko delako. EAEko kontsumitzaileek interes handiarekin jarraitzen dute inflazioaren presioa, erosteko ahalmenean eragina izan dezakeela aurreikusten dutelako. Izan ere, inkestatuen %55ak uste du datozen hilabeteetan prezioak are bizkorrago haziko direla. Argindarraren eta gasaren tarifa doikuntzak eta gasolinen garestitzeak eragina izan dute kontsumitzaileen iritzietan. Analisia lurralde historikoen arabera egiten denean, portaera ezberdinak hautematen dira KKI indizean. Alde batetik, Araban igurikimen baikorragoak daude aurrezkiaz eta langabeziak. Aitzitik, Bizkaian eta Gipuzkoan bi osagai horietaz baikortasuna txikiagoa da.


Inbertsio handietako igurikimenek igoera neurritsua izan dute

Inbertsio handiak egiteko probabilitatearen indizea zertxobait hobetu da 2011ko lehen hiruhilekoan. Bi urte eta erdiz kontsumitzaileek zuhur jokatu dute erosketak egiteko orduan, baina orain badirudi eskaera berriro hazten ari dela. Lehen etxebizitza erosteko indizeak hobera egin du eta horrek higiezin merkatuaren egoerak normalizatzeko bidea hasi duela adieraz dezake. Ibilgailuen erosketaren igurikimenek ere suspertzeko joera hartu dute, nahiz eta matrikulazioetako benetako zenbatekoek oraindik ez duten nahi horiek islatzen. Atal ezkorrena etxerako ondasunen eskarian dago, kontsumitzaileen %42ak aitortu baitu ondasun mota horretako erosketak murrizteko asmoa daukala.

## EAE-KO EKONOMIA

## KONTSUMOA

Kontsumitzailearen konfiantza indizearen bilakaera



## EAE-KO KONTSUMITZAILEEN KONTSUMO ADIERAZLEAK

	III-09	IV-09	I-10	II-10	III-10	IV-10	I-11
<b>Kontsumitzailearen konfiantza indizea</b>	72	93	81	82	81	89	91
Igurikimenak familiaren ekonomia egoeraz	86	94	89	89	93	95	96
Igurikimenak ekonomia orokorraren bilakaeraz	63	88	74	75	83	83	89
Igurikimenak langabeziatz	43	81	60	74	63	72	80
Igurikimenak kontsumitzaileen aurrezkiaz	94	108	99	89	85	107	98
<b>Beste adierazle osagarriak</b>							
Kontsumitzaileen eskariaren igurikimen indizea	81	79	91	69	85	76	73
Inflazioaren igurikimen indizea	126	110	94	67	70	89	61
Aurrezkiaren balorazio indizea	128	159	136	133	135	143	120
Familiaren ekonomia egoeraren indizea	117	134	130	116	116	127	117
Inbertsio handiak egiteko probabilitate indizea	1,6	1,7	1,2	0,7	4,7	2,2	2,3
Etxebizitza nagusia erosteko probabilitate indizea	2,1	1,8	1,4	0,8	5,5	2,3	2,6
Automobila erosteko probabilitate indizea	1,6	2,6	1,3	1,1	5,0	2,8	3,3

Iturria: Hego Euskal Herriko Aurrezki Kutxen Federazioa.

## NDFk aldaketarik gabe utzi ditu bere aurreikuspenak munduko ekonomiarentzat

NDFk udaberriko aurreikuspenak argitaratu ditu

Nazioarteko Diru Funtsak udaberriko aurreikuspenak argitaratu ditu. Beraietan, ez du aldaketarik egin munduko ekonomiaren estimazioetan 2011rako eta 2012rako.

Munduko hazkundea %4,5aren inguruan kokatuko da 2011n eta 2012an

Azken hilabeteetan arazo larriak gertatu dira nazioartean, langabezia maila altua da eta hainbat arrisku makroekonomikok garapen bidean dauden ekonomiak mehatxatzen dute. Hala ere, NDFk %4,4an utzi du bere aurreikuspena 2011. urterako eta %4,5ean, berriz, 2012. urterako. Zenbateko horiek apaltze arina erakusten dute 2010ean lortu zen %5aren aldean. Dena dela, espero diren hazkunde tasa horiek garrantzitsuak dira oraindik, aurrerako bide horretan desorekak egongo diren arren. Nahiz eta garapen bidean dauden ekonomietan gehiegi berotzeko, balizko burbuilak sortzeko eta inflazioa, petrolioaren eta lehengaien salneurria altua delako, bizkor igotzeko arrisku garbia dagoen, erakunde horrek hazkunde bizia espero du ekonomia horietan, %6,5aren ingurukoa, alegia, batez ere Asiako ekonomien bultzadari esker. Hain zuzen ere, multzo horretarako %8,4ko hazkunde tasa iragartzen du bi urteetan.

Azaleratzen ari diren herrialdeak %6,5 haziko dira eta aurreratuak, berriz, %2,4

Hazkunde erritmo sendo horietatik oso urrun daude ekonomia aurreratueterako aurreikusten dituen tasak, hamarren batean jaitsi baitira eta 2011rako %2,4ko gehikuntza tasa espero baitu. Zehazkiago, AEBetako egoera fiskalaz dagoen ziurgabetasunaren ondorioz NDFk bi hamarrenetan jaitsi du herrialde horretarako urtarrilean egin zuen aurreikuspena eta 2010eko maila berean kokatu du orain. Izan ere, AEBak dira 2011n defizit fiskala areagotzeko arriskua duen ekonomia aurreratu handi bakarra eta defizit hori BPGren %10,75era iritsi daiteke, herrialde multzo horretako handiena delarik. Japoniarako estimazioa ere, natur hondamendiek kaltetuta, bi hamarrenetan murriztu du eta bertako BPG %1,4 haziko dela iragarri du, 2010ean lortutako emaitza baino bi puntu eta erdi gutxiago.


Europak aurrerapen mugatua lortuko du eta %1,8 haziko da, 2010ean bezala

Europari dagokionez, susperraldi mugatua espero da, erritmo desberdinetan eta herrialde batetik bestera alde handiak izango dituen. Hain zuzen ere, balantze subiranoen ahultasunak eta higiezinaren merkatuen erantzun ezak kezka iturri handiak dira Euroguneko zenbait herrialdeetan. Eremu horretarako %1,6ko hazkunde aurreikusi du urte honetarako eta %1,8 2012rako. Alemaniaren bilakaera nabarmendu behar da, %2,5 haziko baita, aurreko txostenean %2,2 iragarri bazen ere. Beste aldetik, Erresuma Batua da aurreikuspenen okertzea gehien nabaritu duen herrialde aurreratu, bertako BPG 2011n %1,7 haziko dela estimatu baita, lehenago %2ko gehikuntza aurreikusten zenean. Espainiarako aurreikuspena bi hamarrenetan hobetu da, %0,8 arte, baina herrialde aurreratuetakoz atzeko postuetan jarraituko du. Atzerago, zailtasunak dituzten periferiako ekonomiak bakarrik egongo dira. 2011n Irlanda %0,5 haziko da, Portugal %1,5 jaitziko da eta Greziak, berriz, %3,0 murriztuko du bere BPG.


## INGURUNeko EKONOMIA

## AURREIKUSPENAK


Munduko BPGren bilakaera  
Urte arteko aldakuntza tasa



BPGren bilakaera ekonomia aurreratuetan  
Urte arteko aldakuntza tasa



BPGren bilakaera garatzen ari diren ekonomietan  
Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF. Munduko ekonomiaren aurreikuspenak.

## NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOA

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2010	2011	2012	2011	2012
<b>Munduko ekonomia</b>	5,0	4,4	4,5	0,0	0,0
<b>Ekonomia garatuak</b>	3,0	2,4	2,6	-0,1	0,1
AEB	2,8	2,8	2,9	-0,2	0,2
Eurogunea	1,7	1,6	1,8	0,1	0,1
Alemania	3,5	2,5	2,1	0,3	0,1
Frantzia	1,5	1,6	1,8	0,0	0,0
Espainia	-0,1	0,8	1,6	0,2	0,1
Erresuma Batua	1,3	1,7	2,3	-0,3	0,0
Japonia	3,9	1,4	2,1	-0,2	0,3
<b>Garapen bidean dauden ekonomiak</b>	7,3	6,5	6,5	0,0	0,0
Txina	10,3	9,6	9,5	0,0	0,0
India	10,4	8,2	7,8	-0,2	-0,2

Iturria: NDF. Munduko ekonomiaren aurreikuspenak

## EAEko ekonomiaren adierazle nagusiak

	2008	2009	2010	Azken datua	Urte artekoa
<b>JARDUERA</b>					
IPI .....	-3,4	-20,9	1,8	11ko otsaila	7,2
- Bitarteko ondasunak .....	-5,0	-25,2	6,7	11ko otsaila	9,1
- Ekipamendurako ondasunak.....	-2,3	-25,1	-1,5	11ko otsaila	5,2
- Kontsumoko ondasunak.....	-7,3	-12,1	1,7	11ko otsaila	0,5
- Energia .....	5,0	-6,5	-4,7	11ko otsaila	12,4
Industria jardueraren indizea (IJI)(*) .....	1,1	-21,7	7,5	11ko apirila	6,2
Ekoiizteko ahalmenaren erabilera (%) (*) .	82,6	67,3	69,8	11ko II hiru	75,0
Eskari zorroa(*) .....	-15,7	-73,4	-53,2	11ko apirila	-2,0
Industria giroaren indizea .....	-14,7	-49,5	-20,3	11ko apirila	-6,3
Etxebizitza libreen salneurria €/m <sup>2</sup> .....	2.995,9	2.782,3	2.660,3	11ko I hiru	-3,5
<b>Salmenten indizea prezio iraunkorretan</b>					
Azalera handikoak prezio iraunkorretan	-4,9	-0,3	0,0	11ko martxoa	-15,5
BMI guztira prezio iraunkorretan .....	-4,4	-10,9	2,8	10eko IV hiru	-1,0
BMI txikizkako prezio iraunkorretan ....	-3,2	-4,4	-0,3	10eko IV hiru	-2,4
<b>Esportazioak .....</b>					
Energiaz bestelakoak .....	6,3	-26,3	17,4	10eko IV hiru	17,3
Energiaz bestelakoak .....	4,9	-25,9	17,3	10eko IV hiru	16,7
<b>Inportazioak .....</b>					
Energiaz bestelakoak .....	6,4	-38,9	24,1	10eko IV hiru	24,4
Energiaz bestelakoak .....	-0,8	-38,2	23,8	10eko IV hiru	16,8
<b>Turismoen matrikulazioak .....</b>					
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa ....	-22,6	1,7	-3,1	11ko martxoa	-37,0
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa ....	-41,2	-39,6	0,5	11ko martxoa	-24,1
<b>Aireko trafikoa .....</b>					
Hoteletan igarotako gaualdiak .....	-5,6	-13,5	----	10eko abendua	-6,3
Hoteletan igarotako gaualdiak .....	-4,2	-1,2	17,1	11ko martxoa	-5,3
<b>LAN KOSTUAK</b>					
Soldaten igoera:					
- Indarrean dauden hitzarmenak.....	5,0	2,7	1,9	11ko otsaila	3,8
- Urtean zehar sinatutakoak .....	4,8	2,8	1,7	11ko otsaila	3,5
<b>Lan kostuak</b>					
- Kostu guztiak .....	4,7	2,8	1,4	IV trim. 10	0,4
- Soldata kostu guztiak .....	5,8	2,8	2,0	IV trim. 10	1,0
- Bestelako kostuak.....	1,7	2,8	0,4	IV trim. 10	-1,4

(\*) Baliaok.

Iturria: Eustat, Iberdrola, Lan Harremanen Kontseilua, Trafiko Zuzendaritza Nagusia, Oficemen, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, INE eta Aduana eta Zerga Bereziakotako Saila eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.



## EAEko ekonomiaren aldagai nagusiak

	2008	2009	2010	Azken datua	Urte arteko tasa
<b>PREZIOAK</b>					
KPI indize orokorra:	4,1	0,3	1,7	11ko martxoa	3,5
- Azpiko inflazioa .....	3,2	1,1	0,7	11ko martxoa	1,9
- Hondar inflazioa .....	8,5	-3,6	6,6	11ko martxoa	11,6
EBrekiko aldea .....	0,4	-0,7	-0,3	11ko martxoa	0,5
IPRI .....	5,5	-6,0	3,3	11ko martxoa	10,1
- Bitarteko ondasunak.....	3,8	-7,9	3,1	11ko martxoa	9,5
- Kontsumoko ondasunak.....	4,2	0,5	0,2	11ko martxoa	2,6
- Ekipamendurako ondasunak .....	2,6	1,3	0,1	11ko martxoa	2,1
- Energia .....	15,7	-14,6	11,7	11ko martxoa	27,2
<b>LAN MERKATUA</b>					
<b>BJA</b>					
Parte hartzaileak .....	1,5	1,0	0,9	11ko I hiru	1,8
Partaidetza tasa.....	55,3	55,6	55,9	11ko I hiru	56,3
Landunak .....	1,0	-3,6	-0,3	11ko I hiru	-0,3
Enplegu tasa guztira .....	55,3	51,0	50,8	11ko I hiru	50,3
Gizonen enplegu tasa .....	62,3	58,6	57,8	11ko I hiru	56,8
Emakumeen enplegu tasa.....	44,7	43,9	44,2	11ko I hiru	44,1
Langabezia tasa guztira .....	3,8	8,1	9,2	11ko I hiru	10,7
Gizonen langabezia tasa .....	3,4	8,4	9,6	11ko I hiru	11,2
Emakumeen langabezia tasa .....	4,2	7,8	8,6	11ko I hiru	10,2
Gazteen langabezia tasa.....	9,9	23,0	25,1	11ko I hiru	26,3
<b>BAI (*)</b>					
Parte hartzaileak .....	0,8	-1,5	0,2	11ko I hiru	2,0
Landunak .....	0,5	-6,4	0,7	11ko I hiru	1,2
Langabezia tasa.....	6,4	11,0	10,5	11ko I hiru	11,6
<b>INEM</b>					
Langabeak .....	11,8	42,4	9,9	11ko apirila	14,0
<b>GIZARTE SEGURANTZA</b>					
Afiliatuak .....	1,2	-3,5	-1,0	11ko apirila	0,0

(\* ) 2005eko lehen hiruhilekoan, BIA inkestan galdesorta berri bat eta datuak biltzeko beste modu bat erabiltzen hasi ziren. Horrek eragina izan dezake aurreko hiruhilabetearekiko eta aurreko urteko datuarekiko alderaketan.

Iturria: Eustat, INE, Gizarte Segurantzza eta INEM

## Euskal Autonomia Erkidegorako aurreikuspenak

	BPG		Lehen arloa		Industria		Eraikuntza		Zerbitzuak		BEG	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Eusko Jaurlaritza	0,3	1,4	-1,1	8,2	0,5	2,0	-5,9	-3,7	0,8	1,4	0,1	1,2
Hispalink	---	---	-7,8	2,0	1,7	2,2	-5,0	-3,4	0,6	1,3	0,2	1,1
FUNCAS	0,1	1,4	-1,9	6,4	0,3	1,8	-5,3	-3,0	0,8	1,6	---	---
Confebask	0,2	1,3	---	---	0,3	2,3	-6,0	-2,9	0,8	1,2	---	---
Eusk. Kutxa	0,2	1,3	-8,2	2,2	0,3	1,8	-5,1	-4,1	0,8	1,3	---	---
BBVA	---	1,3	---	---	---	---	---	---	---	---	---	---

	Barneko azken kontsumoa		Kontsumo pribatua		Kontsumo publikoa		Inbertsioa guztira		Barne eskaria (*)		Kanpo saldoa (*)	
	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011	2010	2011
Eusko Jaurlaritza	0,9	1,3	0,8	1,3	1,3	1,1	-5,9	-1,9	-0,8	0,4	1,0	1,0
Confebask	0,4	0,6	0,4	0,8	0,3	-0,1	-4,1	-0,2	-0,7	0,4	0,9	0,9
Eusk. Kutxa	0,9	0,9	0,9	1,2	0,7	0,1	-5,7	-0,8	-0,9	0,5	1,2	0,8

(\*) BPGren hazkundeari eginiko ekarpena.

Iturria: FUNCAS, Hispalink, Confebask, Euskadiko Kutxa, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza eta Eustat

## Euskal Autonomia Erkidegorako hiruhilabetekako aurreikuspenak

	2011				2011	2012	
	I	II	III	IV		I	II
BPG (m.p.) .....	1,1	1,3	1,4	1,8	<b>1,4</b>	1,8	2,0
Barneko azken kontsumoa .....	1,1	1,3	1,3	1,4	<b>1,3</b>	1,5	1,5
Familien kontsumoa .....	1,2	1,3	1,3	1,5	<b>1,3</b>	1,5	1,5
Administrazioaren kontsumoa .....	1,0	1,2	1,0	1,1	<b>1,1</b>	1,2	1,2
Kapital eraketa gordina .....	-2,9	-2,0	-1,4	-1,1	<b>-1,9</b>	-0,5	0,6
Barne eskariaren ekarpena .....	0,1	0,4	0,5	0,7	<b>0,4</b>	0,9	1,1
Kanpo arloaren ekarpena .....	1,0	0,9	0,9	1,1	<b>1,0</b>	0,9	0,9
Lehen arloa .....	8,7	10,7	5,5	8,0	<b>8,2</b>	7,7	9,6
Industria .....	1,9	1,9	2,0	2,3	<b>2,0</b>	2,6	2,6
Eraikuntza .....	-5,0	-4,1	-3,2	-2,5	<b>-3,7</b>	-1,8	-1,4
Zerbitzuak .....	1,2	1,4	1,4	1,7	<b>1,4</b>	1,7	1,8
Balio erantsi gordina .....	0,9	1,1	1,2	1,6	<b>1,2</b>	1,7	1,8
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	2,7	2,8	2,8	3,1	<b>2,9</b>	3,0	3,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

## Espainiako ekonomiarentzat eginiko aurreikuspenak

	BPG			BPG	
	2011	2012		2011	2012
AFI .....	0,8	1,3	Intermoney .....	1,1	1,9
BBVA .....	0,9	1,9	La Caixa .....	0,5	1,5
Caja Madrid .....	0,7	1,5	Repsol .....	0,7	1,3
Catalunyacaixa .....	0,8	1,6	Santander .....	0,8	1,5
Cemex .....	0,6	---	BATEZ BESTEA .....	0,8	1,5
CEPREDE-UAM .....	0,8	1,0	Gobernua (2011-04) .....	1,3	2,3
FUNCAS .....	0,8	1,4	Espainiako bankua (2011-03)	0,8	1,5
ICAE-UCM .....	0,7	---	E. Batzordea (2011-02) ....	0,8	---
IEE .....	0,5	---	NDF (2011-04) .....	0,8	1,6
IFL-UC3M .....	0,6	1,5	ELGE (2010-11) .....	0,9	1,8

Iturria: FUNCAS, Ekonomia eta Ogasun Ministerioa, CEPREDE, ELGE, NDF eta Europar Batzordea.

AFI: Analistas Financieros Internacionales; ICAE-UCM: Instituto Complutense de Análisis Económicos-Madrileko Unibertsitate Konplutentse; ICO: Instituto de Crédito Oficial; IEE: Instituto de Estudios Económicos; IFL-UC3M: Flores de Lemus Institutua-Carlos III Unibertsitatea Madril; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; E. Batzordea: Europar Batzordea; NDF: Nazioarteko Diru Funtza; ELGE: Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

## Hiruhilabetetako aurreikuspenak Espainiako ekonomiarentzat

	2011				2011	2012	
	I	II	III	IV		I	II
BPG .....	0,7	0,6	0,9	0,9	<b>0,8</b>	1,0	1,0
Kontsumo pribatua .....	1,1	0,1	1,1	1,1	<b>0,9</b>	1,2	1,3
Kontsumo publikoa .....	-1,2	-2,0	-1,1	0,0	<b>-1,1</b>	0,7	0,6
Kapital finkoaren eraketa gordina .....	-4,3	-3,5	-0,3	1,5	<b>-1,7</b>	1,5	1,7
- Inbertsioa ekipamenduan .....	1,7	0,9	6,9	6,7	<b>4,0</b>	5,2	4,4
- Inbertsioa beste produktuetan .....	-8,5	-7,0	-4,5	-1,6	<b>-5,5</b>	-1,1	-0,6
- Inbertsioa eraikuntzan .....	1,0	1,5	2,4	3,7	<b>2,1</b>	3,7	4,9
Barne eskari erreala.....	-0,6	-1,1	0,6	1,3	<b>0,0</b>	1,4	1,5
Esportazioak .....	9,9	9,2	7,8	4,8	<b>7,9</b>	4,0	4,1
Inportazioak .....	4,6	2,1	5,4	4,6	<b>4,2</b>	4,3	4,2

Iturria: CEPREDE.

## Nazioarteko ekonomiari buruzko aurreikuspenak

Herrialdea edo eremua	Erakundea	Aurreikuspenaren data	2011		2012	
			Azkena	Aurreko	Azkena	Aurreko
AEB	The Economist	2011ko apirila	2,9	3,3	3,1	3,2
	Consensus Forecast	2011eko apirila	2,9	3,2	3,3	3,3
	ELGE	2010eko azaroa	2,2	3,2	3,1	---
	NDF	2011ko apirila	2,8	3,0	2,9	2,7
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	2,1	2,5	2,5	---
Japonia	The Economist	2011ko apirila	0,7	1,7	2,3	2,0
	Consensus Forecast	2011eko apirila	0,3	1,5	2,7	2,0
	ELGE	2010eko azaroa	1,7	2,0	1,3	---
	NDF	2011ko apirila	1,4	1,6	2,1	1,8
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	1,3	1,5	1,7	---
Erresuma Batua	The Economist	2011ko apirila	1,6	1,6	1,9	2,0
	Consensus Forecast	2011eko apirila	1,8	1,9	2,2	2,2
	ELGE	2010eko azaroa	1,7	2,5	2,0	---
	NDF	2011ko apirila	1,7	2,0	2,3	2,3
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	2,2	2,1	2,5	---
Europar Batasuna	Europar Batzordea	2010eko azaroa	1,7	1,7	2,0	---
	NDF	2011ko apirila	1,8	1,7	2,1	2,0
Eurogunea	The Economist	2011ko apirila	1,7	1,6	1,7	1,7
	Consensus Forecast	2011eko apirila	1,7	1,7	1,7	1,7
	ELGE	2010eko azaroa	1,7	1,8	2,0	---
	NDF	2011ko apirila	1,6	1,5	1,8	1,7
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	1,5	1,5	1,8	---
Alemania	The Economist	2011ko apirila	2,7	2,6	2,1	2,0
	Consensus Forecast	2011eko apirila	2,7	2,5	1,9	1,8
	ELGE	2010eko azaroa	2,5	2,1	2,2	---
	NDF	2011ko apirila	2,5	2,2	2,1	2,0
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	2,2	1,6	2,0	---
Frantzia	The Economist	2011ko apirila	1,7	1,7	1,7	1,8
	Consensus Forecast	2011eko apirila	1,7	1,6	1,7	1,8
	ELGE	2010eko azaroa	1,6	2,1	1,6	---
	NDF	2011ko apirila	1,6	1,6	1,8	1,8
	Europar Batzordea	2010eko azaroa	1,6	1,5	1,8	---